

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
35/2017	R20/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Estatuko Administrazioa/Gipuzkoako Foru Aldundia	2001eko BEZ - SZ - Ordainarazpen- eskuduntza duen Administrazioa

**Ebazpena: R20/2017**  
**Espedientea: 35/2017**

Gasteizko hirian, 2017ko abenduaren 22an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea.  
Batzordeburua: Gabriel Casado Ollero jauna.  
Batzordekideak: Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese jaunak.

## ERABAKIA

Gaia: 2001-2003. urteetako BEZ eta Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenarekin lotutako diskrepantzia bat konpontze aldera, A, SA entitateak (aurrerantzean, A entitatea) eskumen-gatazka bat planteatu du Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurrean (aurrerantzean, ZAEA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean (aurrerantzean, GFA). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 35/2017 espediente-zenbakiarekin, Isaac Merino Jara jauna txostengile gisa diharduelarik.

### I. AURREKARIAK

1.- 35/2017 gatazka D jaunak planteatu zuen, A entitatea merkataritza-sozietatearen izatezko administratzailea den aldetik, 2017ko urriaren 3ko idazki baten bidez.

2.- Gatazkaren azalpen-idazkitik honako gertaera esanguratsu hauek eratortzen dira, gatazkaren ondorioetarako:

a) A entitateak GFARI 300.508,03 euro ordaindu zizkion 2001-2003ko Sozietateen gaineko Zergan eta 198.100 euro 2001-2003ko BEZean.

b) ZAEAREN Zaragozako ordezkariak ikuskapen-prozedura egin zion A entitateari, eta horrek zigor-zuzemenak ekarri zizkion (118/2004 prozedura laburtua), zeinak burutu baitziren C jauna eta D jaunak zerga-delitu bategatik zigortu zituen epai batekin.

Espedientea	Ebazpena		Inplikaturako administrazioak		Kontzeptua
35/2017	R20/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Estatuko Administrazioa/Gipuzkoako Foru Aldundia	2001eko BEZ - SZ - Ordainarazpen- eskuduntza duen Administrazioa

Halaber, aipatu bi pertsona horiei zigor gisa ezarri zitzairen ZAEARI kalte-ordainetan 804.0427,83 euro gehi interesak itzultzeko beharra.

**c)** A entitatea kalte-ordain horren erantzule zibil subsidiarioa zela ebatzi zen.

**d)** A entitateak GFARI eskatu zion itzul ziezazkiola 2001-2003 bitartean BEZ eta Sozietateen gaineko Zergan bidegabeki jasotako zenbatekoak, eta ZAEARI ere bidal ziezazkiola, aipaturako erantzukizun zibil subsidiarioari aplikatzeko.

**3.-** Ez da ageri espedientean GFAK itzulketari ezezkorik eman dionik.

**4.-** ZAEAK eskuduntzat jotzen du bere burua zergapekoari ordainarazteko, GFARI itzultzeko eskatu zaizkion zerga eta aldiengatik.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**1.-** Zergapekoak planteaturako gatazkan, A entitateak bere gain hartzen du zergapekoaren 2001-2003ko BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga ordainarazteko eskuduntza, agerikoa baita ZAEAK eskuduntzat jotzen duela bere burua (zerga-delitua dela-eta ezarritako zigorrak zehaztu du ingresatzekoa den emaitza) eta ez baitago jasota GFAK eskuduntzat jotzen duenik berea.

**2.-** Zergapekoak GFARI eskatzen dion itzulketa ez da tributuen likidazio-mekanikatik eratorren; aldiz, bidegabeki jasotako diru-sarreraren itzulketa da, irizten delako GFA ez zela eskuduna BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga ordainarazteko.

**3.-** Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatzen denaren arabera, ebazpenak osotasunezkoa izan behar du, espedientetik eratorren diren gorabehera guztiak aintzat hartuz, aldeek alegaturakoak izanda nahiz ez. Hori dela eta, baloratu behar da, lehenik, eskumen-gatazka hau ebazteko Arbitraje Batzordeak duen eskuduntza.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.3 artikulua, zeina Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartu baitzuen, ezartzen du: «*beste kasu batzuetan, ezein administrazioak bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipaturako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin*».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
35/2017	R20/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Estatuko Administrazioa/Gipuzkoako Foru Aldundia	2001eko BEZ - SZ - Ordainarazpen- eskuduntza duen Administrazioa

Planteatu den gatazka ez da gatazka negatiboa, hau da, ezein Administraziok ez duela bere burua eskuduntzat jotzen zergapekoari ordainarazteko; aldiz, hain zuzen, gatazka positiboa da, non gutxienez Administrazio batek (ZAEAk) bere burua eskuduntzat jotzen baitu zergapekoari ordainarazteko, eta ez dago jasota beste Administrazioak eskuduntzarik ez duenik.

Espedientean egiaztatuta geratzen den arren A entitateak itxuraz bidegabekoa den ordainketa bat egin diola GFARI 2001-2003 urteetako BEZ eta Sozietateen gaineko Zergan, gatazka hau ez onartzea beste biderik ez da geratzen, ez delako eskumen-gatazka negatibo bat, ziurtatuta dagoelako ZAEAk bere burua eskuduntzat jotzen duela eta, bide batez, Arbitraje Batzorde honek ez duelako ahalmenik egikaritu diren administrazio-jarduketak berrikusteko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## ERABAKI DU

- 1.- Gatazka hau ez onartzea.
- 2.- Ebazpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta A entitateari jakinaraztea.